




Alde zaharra, premiazko erronka

Editoriala

**EH Bilduk ez ditu udal
aurrekontuak
babestuko**

EH Bildu no apoyará los
presupuestos municipales

Espazio publiko irigarria guztiontzat

Espacios públicos accesibles
para todas y todos

Berokuntza komunitarioa Elgoibarren

Calefacción comunitaria
en Elgoibar

Altzolarekiko zor historikoaren aitorpena

Reconocimiento de la deuda
histórica con Altzola

EH Bilduk alkatetza duenean... Hernani

Cuando EH Bildu gobierna...
Hernani

Elkarrizketa: Jose Luis Mulas

"Alde zaharra premiazko
erronka"

Editoriala

EH Bilduk ez ditu udal aurrekontuak babestuko

Urtero bezala, heldu da unea datorren ekitaldirako Udalak izango dituen aurrekontuak zehazteko. Aurrekontu hauek martxan jarri ahal izango diren ekimenak eta proiektuak markatuko dituzte, baita herritarrei eskainiko zaizkien zerbitzu publikoak ere.

Udal-aurrekontuen aurrean dugun jarrera funtsezko bi premisa baloratzean oinarritzen da:

1. Aurrekontua egiteko eredua

Gobernantza komunitarioa da EH Bilduren ezaugarrietako bat: herritarrekin, gainerako alderdiekin eta eragile sozial eta ekonomikoekin batera gobernatzearen aldeko apustua. Ikuspegi horretatik, gure balorazioa ezin da negatiboagoa izan. Udal Gobernuak ez du informazio-, kontsultazio edo partaidetza-bide formalik jarri aurrekontuak egiteko prozesuan.

2. Aurrekontuak herritarren bizitza hobetzeko tresna gisa

Aurkeztutako aurrekontuak kontinuistak direla uste dugu. Urte askoren ondoren, oraindik ez dago proiektu berririk udalaren gaitasuna

hobetzeko beharrei erantzuteko, bai betikoei, bai sortzen ari direnei.

Bereziki adierazgarria da, hasi diren aurrekontuetan, Pertsonen eremua —hiru ardatz nagusietako bat, Antolakuntzarekin eta Lurraldearekin batera— gutxien hazten dena izatea, batezbestekoa igoeraren azpitik kokatuz. Arlo zehatz batzuetan, hala nola Euskara, Kultura, Gazteria eta Berdintasunean, partidak murriztu ere egin dira termino absolutuetan. Larritzat jo dugu hori.

Hori dela eta, EH Bilduk proposamen sorta bat aurkeztu du aurrekontuak hobetzeko, lehentasunezko zat jotzen ditugun arlo hauetan:

- Lurralde-antolamendua, mugikortasuna eta azpiegiturak
- Etxebizitza-politika
- Gizarte-ongizatea
- Ingurumena
- Euskara, kultura eta gazteria
- Berdintasuna
- Parte-hartzea

EH Bildu no apoyará los presupuestos municipales

Como cada año, ha llegado el momento de definir los presupuestos de los que dispondrá el Ayuntamiento para el próximo ejercicio. Estos presupuestos marcarán las iniciativas y proyectos que podremos poner en marcha, así como los servicios públicos que se ofrecerán a la ciudadanía.

Nuestra posición ante los presupuestos municipales se basa en la valoración de dos premisas fun-

damentales:

1. El modelo de elaboración del presupuesto

Una de las señas de identidad de EH Bildu es la gobernanza comunitaria: la apuesta por gobernar junto a la ciudadanía, el resto de partidos y los agentes sociales y económicos. Desde esta perspectiva, nuestra valoración no puede

ser más negativa. El Gobierno Municipal no ha habilitado ninguna vía formal de información, consulta o participación durante el proceso de elaboración presupuestaria.

2. Los presupuestos como herramienta para mejorar la vida de la ciudadanía

Consideramos que los presupuestos presentados son conti-

Ondoko taulan egindako proposamenak, bi zutabetan banatuta, lortutako erantzunaren arabera.
En el cuadro adjunto las propuestas realizadas, clasificadas en dos columnas según la respuesta obtenida:

Sallobentera ur publikoaren lehen fasea burutzea / Ejecución de la primera fase para el acceso al agua pública en Sallobente	X	Altzola berroneratzeko plana Plan de regeneración de Altzola	✓
Lur publikoak erosteko partida sortu Crear una partida para la compra de terrenos públicos	X	Komun publikoen udal plana Plan municipal de aseos públicos	✓
Udal ondarea handitu (etxebizitza) Aumentar el patrimonio municipal (vivienda)	X	Indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa Protocolo para combatir la violencia machista	✓
Muguruza eskolen etorkizuna erabakitzeke herritarren parte-hartzea / Participación ciudadana para decidir el futuro de las escuelas de Muguruza	X	Etxebizitza hutsen diagnostikoaren eguneraketa Actualización del diagnóstico de viviendas vacías	✓
Babes klimatikoak sortu eta berdeguneak hedatzeko partida Partida para crear refugios climáticos y ampliar zonas verdes	X	EH Bilduren komunitate energetikoaren proiektuaren azterketa / Análisis del proyecto de comunidad energética de EH Bildu	✓
Etkez etxeko langileen baldintzak hobetzeko neurriak esleipenean txertatu / Incorporar en la adjudicación medidas para mejorar las condiciones de las trabajadoras a domicilio	X	Bakardadeari buruzko 2023ko diagnostikoa garatu Implementar el diagnóstico de 2023 sobre la soledad	✓
Euskara eta kultura sustatu (Elgoibarko Izarraren partidak eguneratu) Fomentar el euskera y la cultura (actualizar las partidas de Elgoibarko Izarra)	X		
Bideen konponketa eta mantenurako partida handitu Ampliar la partida de reparación y mantenimiento de caminos	X		
Berdintasun plana sustatu / Impulsar el plan de igualdad	X		
Herribus zerbitzua irisgarritasun planari egokitzea Adecuación del servicio Herribus al plan de accesibilidad	X		

X Ezezo erantzuna (ez onartuak edo konpromisorik edo zehaztasunik gabeak) / Respuesta negativa (no aceptadas o sin compromiso o concreción)

✓ Erantzun positiboa ahoz (artikulu hau idaztean Aurrekontu idatzian oraindik gehitzeke) / Respuesta positiva oral (pendiente de incluir en el Presupuesto escrito al redactar este artículo)

Aurkeztutako aurrekontuaren balorazio orokorra eta gure proposamenei emandako erantzuna ikusita, EH Bilduk udal aurrekontuak ez babestea erabaki du.

A la vista de la valoración global del presupuesto presentado y de la respuesta obtenida a nuestras propuestas, EH Bildu ha decidido no apoyar los presupuestos municipales.

nuistas. Tras muchos años, sigue sin haber proyectos nuevos que mejoren la capacidad municipal para responder a las necesidades, tanto las de siempre como las emergentes.

Resulta especialmente significativo que, en unos presupuestos de carácter expansivo, el ámbito de Ciudadanía —uno de los tres grandes ejes junto a Organización y Territorio— sea el que menos

crezca, situándose por debajo del incremento medio. En algunas áreas concretas, como Euskara, Cultura, Juventud e Igualdad, incluso se reducen las partidas en términos absolutos.

Es por ello que EH Bildu ha presentado una batería de propuestas que pretendían mejorar los presupuestos en los siguientes ámbitos, que consideramos prioritarios:

- Ordenación territorial, movilidad e infraestructuras
- Política de vivienda
- Bienestar social
- Medio ambiente
- Euskara, cultura y juventud
- Igualdad
- Participación

Irisgarritasun unibertsaleko Plan integrala

Udala, irisgarritasun unibertsala bermatzeko Plan bat izatera behartuta dago: irisgarritasun fisikoa, sentsoriala, kognitiboa eta digitala hartu behar dira aintzat herritar guztiek espazio publikoa eta zerbitzuak berdinki erabiltzeko. 800en bat herritar dira horren beharra dutenak.

Gobernu Batzordeak enpresa bati agindu zion Plana egitea eta proposamenak bide administratibo-politikoa hasi duen honetan, hauek EH Bilduren iritziak:

Prozeduraz:

- Enpresa bati eskatzea soberako gastua da: udal teknikariek, helburu diren herritarrez lagunduta eta beste herrietako planak aztertuta, egoki egin zezaketen.
- Hauxe da gai egokienetakoa herritarren partaidetza aktibatzeke.
- Gobernu batzordeak ukatu egin du baina jendaurrean ipintzeari egoki deritzogu, herritarren ekarpenak jasotzeko.

Edukiaz:

- Planean diren neurri asko oso egokiak dira. Baina egungo testuak arazo fisikoak dituztenei erantzuten die nagusiki, behar sentsorialak, kognitiboak eta digitalak dituztenak gutxietsita, nahiz eta jakitun garen arloko elkarteek eskaera zehatzak egin dituztela.

Egutegiaz:

- Planari, lehenetasunak gehitu behar zaizkio, urtea eta aurrekontua zehaztuz, 2026ko aurrekontuetatik hasita.

Aurrerapen txikia lortuta ere, EH Bilduk baietz esango dio Planari baina alkatetzara iristen garenean hobetzeko hitza emanda.



Plan integral de accesibilidad universal

El Ayuntamiento está obligado a tener un Plan de accesibilidad universal: las accesibilidades física, sensorial, cognitiva y digital deben garantizar el uso igualitario del espacio público y de los servicios. Lo necesitan unos 800 elgoibarreses.

La Comisión de Gobierno encargó el Plan a una empresa y ahora que la propuesta inicia la vía política, esta es la opinión de EH Bildu:

Sobre el procedimiento:

- El encargo a una empresa es un gasto superfluo: los técnicos municipales, junto con los ciudadanos objetivo y analizando planes de otras localidades, podrían hacerlo adecuadamente.
- Este es un tema ideal para activar la participación ciudadana.
- La Comisión de Gobierno lo ha negado, pero creemos oportuno someter el Plan a información pública.

Sobre el contenido:

- Muchas medidas del Plan son adecuadas. Pero el texto actual prioriza la accesibilidad física, infravalorando las necesidades sensoriales, cognitivas y digitales aun habiendo recibido peticiones expresas de las asociaciones de afectados.

Sobre el calendario:

- Al Plan le falta un calendario de prioridades, especificando año y presupuesto, empezando por los presupuestos de 2026.

En el plan hay avances, por lo que EH Bildu lo apoyará, pero nos comprometemos a profundizarlo en cuanto lleguemos a la alcaldía.

Berokuntza komunitarioa Elgoibarren

Auzo batek eta Udalak beren energia beharrak elkarrekin kudeatzeak, erabaki solidarioa izateaz gain, aurrezki ekonomikoa dakarkie erabiltzaileei eta energiaren efizientzia handitzen du.

Gure proposamena: trenbidea eta Sallobente erreken gainean diren instalazio publikoak eta nahi duten inguruko etxeen artean energia-komunitate bat sortzea berokuntza sistemak hornitzeko eta ur beroa edukitzeko.

Bertan dira Mintxeta, Arreiturre institutua, Meka, Olaizaga kiroldegia, IMH, honen ondoko kirol pista eta guztien inguruan etxebizitza ugari. Inguru horretan dago ere Alcorta fabrika eta aztertzerik legoke bero-soberakinik duen, hori ere ustiatzeko.

Sistema energetiko horren bihotza, Euskal Herriko biomasaz baliatuko litzatekeen galdara bat litzateke, erabiltzaileak hodiz lotuz.

Batek pentsa lezake hau asmaketa bat dela, baina honez gero asko dira tamaina bereko eta are handiagoko instalazioak Europan. Urruti



joan gabe, EH Bilduk gobernatzen duen Agurainen, eraikin publiko guztietara iritsiko da beroa. Lehenik, lau ikastetxeak, aterpetxea eta osasun zentroa lotzen ari dira.

Instalazio hauen abantailak:

- Jasangarritasuna.
- Erabiltzaileentzako aurrezkia.
- Tokiko baliabideak.
- Komunitate-lotura indartu.

Udaletik bultzatuko dugun proiektua da honako hau.

Calefacción comunitaria en Elgoibar

Que un barrio y el Ayuntamiento gestionen conjuntamente sus necesidades energéticas, además de solidario, supone un ahorro económico para los usuarios y un aumento de la eficiencia.

Nuestra propuesta es crear una comunidad energética que englobe las instalaciones públicas y las viviendas que lo deseen, situadas por encima del ferrocarril y el arroyo Sallobente, para abastecerse de calefacción y agua caliente.

Ahí están Mintxeta, el institu-

to Arreiturre, la Meca, el polideportivo Olaizaga, el IMH con sus pistas deportivas y numerosas viviendas. Aquí también está la fábrica de Alcorta que podría tener excedentes de calor aprovechables.

El corazón de esta comunidad energética sería una caldera conectada a los usuarios que se serviría de biomasa cercana.

Uno podría pensar que esto es una fantasía, pero son muchas las instalaciones de igual y aun mayor tamaño en Europa. Sin ir

más lejos, en Agurain, gobernada por EH Bildu, el calor llegará a todos los edificios públicos. En la primera fase se están conectando los cuatro colegios, el albergue y el centro de salud.

Ventajas de estas instalaciones:

- Sostenibilidad.
- Ahorro para los usuarios.
- Recursos locales.
- Vínculo comunitario.

Este es uno de los proyectos que trabajaremos en el Ayuntamiento.

Altzolarekiko zor historikoaren aitorpena



1 999an Eusko Jaurlaritzak Altzola eremu degradatutzat izendatu zuen, bertako auzotarren bizi kalitatea hobetzeko esku hartzeak premiazkoak zirela onartuz.

2007an, Eusko Jaurlaritzak Altzola eremu degradatuak berreskuratzeko planean sartu zuen, baina iragarritako 1.500.000 euroko inbertsio estrategikoetatik 250.000 € baino ez ziren gauzatu, eta horiek unean uneko hobekuntzetara bideratu ziren.

Beraz, 1999ko aitorpen hartatik, Altzolaren degradazio-maila areagotu baino ez da egin.

Joan den azaroan, Gipuzkoako Batzar Nagusiek, EH Bilduk proposatuta eta EAJren eta PSEren aurkako botoekin, Altzola auzoarekin izandako zorra aitortzen duen ebazpen bat onartu dute, galdutako tren zerbitzua berreskuratzea eta Altzolarako hiri berroneratze plan bat garatzea eskatuz.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako ebazpena

- Eusko Jaurlaritzari eta Elgoibarko Udalari eskatzea tren-geltoki berria eraikitzeko proiektua kentzeko behar diren azalpenak eman ditzatela.
- Eusko Jaurlaritzari eskatzea Altzolako tren-geltokia eraberritzeko proiektua berreskuratzeko. Eta bestela, Altzola auzoarekin izandako zorra aitortu eta bere gain har dezala.
- Eusko Jaurlaritzari eskatzea Euskotrenek eskaintzen dituen trenbideko garraio-zerbitzuetarako kalitatezko sarbidea ziurta dezala, garraio-konexio azkar baten bidez.
- Elgoibarko Udalari Altzola auzorako Hiri Berroneratze Integraleko Plan bat idazteko berehalako kontratazioa egiteko eskatzea, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari plan hori idazten, finantzatzen eta garatzen aktiboki laguntzeko eskatzea.

EH Bildutik lanean jarraituko dugu Altzolak auzotarren parte-hartzea berma dadin planaren behar duen berroneratze plana izan dezan eta diseinuan zein garapenean

Reconocimiento de la deuda histórica con Altzola

En 1999 el Gobierno Vasco declaró Altzola zona degradada, reconociendo la urgencia de intervenir para mejorar la calidad de vida de sus vecinos.

En 2007 Altzola fue incluida por el Gobierno Vasco en el plan de recuperación de áreas degradadas, pero de las inversiones estratégicas anunciadas

por valor de 1.500.000 sólo se ejecutaron 250.000 € que se destinaron a mejoras puntuales.

Como consecuencia, desde aquel reconocimiento de 1999, el grado de degradación de Altzola no ha hecho más que aumentar.

Este pasado noviembre las

Juntas Generales de Gipuzkoa, a propuesta de EH Bildu y con los votos en contra de PNV y PSE han aprobado una resolución por la que se reconoce la deuda contraída con Altzola, reclamando la recuperación del servicio ferroviario perdido, y el desarrollo de un plan de regeneración urbana para el barrio.

Resolución aprobada por las Juntas Generales de Gipuzkoa

- Solicitar al Gobierno Vasco y al Ayuntamiento de Elgoibar a que den las explicaciones oportunas de por qué se eliminó el proyecto de construcción de la nueva estación ferroviaria.
- Solicitar al Gobierno Vasco que recupere el proyecto de reforma de la estación de tren de Altzola. Y si no, que reconozca y asuma la deuda contraída con el barrio de Altzola.
- Solicitar al Gobierno Vasco que asegure el acceso de calidad a los servicios de transporte ferroviario prestados por Euskotren a través de una conexión rápida de transporte.
- Solicitar al Ayuntamiento de Elgoibar la contratación inmediata de la redacción de un Plan de Regeneración Urbana Integral para el barrio de Altzola y a la Diputación Foral de Gipuzkoa que colabore activamente en su redacción, financiación y desarrollo.

Desde EH Bildu continuaremos trabajando para que se desarrolle el plan de regeneración que necesi-

ta Altzola y se garantice la participación de los vecinos tanto en el diseño del plan como en su desarrollo.

EH Bilduk alkatetza duenean... Hernani

Hernanik etxeko zaintzako zerbitzuaren kalitatea eta langileen duintasuna jarri ditu erdigunean

Hernaniko Udalak aurrerapauso garrantzitsua eman du etxeko zaintza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta Hernani zaintza ikuspegi feministatik eta komunitariorik bideratzen duen herri zaintzaile bihurtzeko.



Hernaniko Udalak azken urteotako gizarte-inbertsiorik esanguratsuenetako bat onartu du: Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuko langileen lan-baldintzak udal-langileekin parekatzeko proiektu integrala. Horretarako, ia milioi bat euro gehiago erabiliko ditu datozen lau urteetan. Luzaroan eskatu den neurria da, eta etxeko zaintza-zerbitzuan lan egiten duten emakumeen lanaren benetako balioa aitortzen du, funtsezkoa baita udalerriko familia askoren ongizaterako. *"Badakigu zaintzaileen lan eta bizi baldintzak hobetzeak zaintzaren bizi kalitatea hobetzen duela"*, adierazi du Xabier Lertxundi alkateak.

Planak funtsezko hiru aurrerapen ditu. Lehenik, Udalak hartutako konpromisoari esker, langileek bost urteko indarraldia duen lan-hitzarmena sinatu dute enpresarekin, lan-baldintzen egonkortasuna, ziurtasuna eta etengabeko hobekuntza bermatzeko. Bigarrenik, soldataren % 45eko igoerak jauzi kualitatiboa dakar sektorearen duintasunean, eta Hernani zaintza arloko udalerrri erreferenteen artean kokatzen du. Eta, hirugarrenik, lanaldia murriztea, lan-osasuna hobetzeko eta kontziliazioa errazteko.

Proiektua helburu argi batekin sortu da: eskubideak parekatzea eta kolektibo feminizatu eta historikoki prekarizatu baten funtsezko lana aitortzea. Hernanik zaintza publiko, profesional eta kalitatekoaren aldeko apustua egin du, udalerriko lehentasun sozialekin bat etorritik.

Ibilbide-orria hainbat fasetan egituratzen da. Lehena soldata- eta lanaldi-hobekuntzak berehala aplikatzean datza. Bigarrenak zerbitzuaren egitura indartzen du, taldeen jarraipena, prestakuntza eta egonkortasuna bermatzeko neurrien bidez. Hirugarren faseak eredu berriaren eragina ebaluatzea aurreikusten du, arreta berezia jarriz zerbitzuaren kalitatean eta langileen eta erabiltzaileen gogobetetzean.

Proiektu hau lan-hobekuntza baino zerbait gehiago da: zainketak erdigunean jartzeko, haien balioa aitortzeko eta eredu bidezkoago, berdintasunezkoago eta iraunkorrago baterantz aurrera egiteko apustu politikoa da. *"Datorkigunari erantzungo dion zerbitzu publiko bat nahi dugu"* adierazi du Lertxundi alkateak, eta *"erakunde publiko gisa dugun erantzukizunak eman dugun pausoa ematera garamatza"*

Cuando EH Bildu gobierna... Hernani

Hernani pone en el centro la calidad del servicio de cuidado a domicilio y la dignidad de las trabajadoras

El Ayuntamiento de Hernani ha dado un paso importante para mejorar la calidad del servicio de cuidado a domicilio y hacer de Hernani un pueblo cuidador que orienta los cuidados desde una perspectiva feminista y comunitaria.



El Ayuntamiento de Hernani ha aprobado una de las inversiones sociales más significativas de los últimos años: un proyecto integral para equiparar las condiciones laborales del personal del Servicio de Ayuda a Domicilio con el personal municipal. Para ello destinará casi un millón de euros más en los próximos cuatro años. Se trata de una medida largamente solicitada que reconoce el valor real del trabajo de las mujeres que trabajan en el servicio de cuidado a domicilio, fundamental para el bienestar de muchas familias del municipio. *"Somos conscientes de que mejorar las condiciones de trabajo y vida de los cuidadores mejora la calidad de vida del cuidado"*, ha señalado el alcalde, Xabier Lertxundi.

El plan contiene tres avances fundamentales. En primer lugar, gracias al compromiso adquiri-

do por el Ayuntamiento, los trabajadores han firmado con la empresa un convenio laboral de cinco años de vigencia que garantiza la estabilidad, seguridad y mejora continua de las condiciones de trabajo. En segundo lugar, la subida salarial del 45% que supone un salto cualitativo en la dignidad del sector y sitúa a Hernani entre los municipios referentes en materia de cuidados. Y, en tercer lugar, reducir la jornada laboral para mejorar la salud laboral y facilitar la conciliación.

El proyecto nace con un objetivo claro: equiparar derechos y reconocer la labor fundamental de un colectivo feminizado e históricamente precarizado. Hernani apuesta por un cuidado público, profesional y de calidad, acorde con las prioridades sociales del municipio.

La hoja de ruta se estructura

en varias fases. La primera consiste en la aplicación inmediata de las mejoras salariales y de jornada. La segunda refuerza la estructura del servicio mediante medidas que garantizan la continuidad, formación y estabilidad de los equipos. La tercera fase prevé evaluar el impacto del nuevo modelo, con especial atención a la calidad del servicio y a la satisfacción de trabajadores y usuarios.

Este proyecto es por lo tanto algo más que una mejora laboral: es una apuesta política para poner los cuidados en el centro, reconocer su valor y avanzar hacia un modelo más justo, igualitario y sostenible. *"Queremos un servicio público que responda a lo que nos viene"*, ha señalado el alcalde Lertxundi, para quien *"nuestra responsabilidad como institución pública nos lleva a dar el paso que hemos dado"*.

Erdigunea, premiazko erronka



Erdiguneko egoera kezkarria agerian uzten duten hainbat gertakarik markatzen dute legegintzaldia. Egoera horri buelta emateko gakoak aztertzeke, Jose Luis Mulas EH Bilduko zinegotzi eta Udaleko Lurralde Batzordeko kidearekin hitz egin dugu.

Hasteko, nola deskribatuko zenuke alde zaharreko egungo egoera?

Erdigunea, ondare historiko eta arkeologikoa, bisitatzen gaituztenei eskaintzen diegun irudia

eta elkarrekin bizi eta erlazionatzen garen espazioa izan arren, atzerakada nabarmenean dago. Kezkaz ikusten ditugu erakusten dituen degradazio-zantzuak: erorketak, suteak, fatxada-hondakinen erorketa eta itxiturak egiturazko arriskuagatik. Horrek guztiak segurtasunik gabeko giroa sortzen du, ez bakarrik materiala, baita soziala ere, eta egoera horri buelta emateko politikak premia hartzea eskatzen du.

Zein da arrisku nagusia ikuspegi teknikotik?

Zurezko egitura duten eraikin asko daude, eta horrek areagotu egiten du suteak eta egiturazko akatsak izateko arriskua. Horregatik, edozein lanek protokolo zorrotzak eta eraikin bakoitzaren berezitasunetara egokituak bete behar ditu: material egokiak, aldi baterako babes-sistemak edo aldamio seguruak. Eta ezinbestekoa da eraikinen ikusketa teknikoen (EIT) jarraipen zorrotza egitea, neurri zuzentzaile errealek hartu behar baitira bizigarritasuna eta segurtasuna hobetzeko.

EH Bilduk birgaitze plan integral bat defendatu du. Zer jaso beharko luke plan horrek?

Lehenik, egiturazko egoeraren, tipologiaren eta arriskuen diagnostiko sakona. Ondoren, sendotzeko, instalazioak egokitzeko, fatxadak hobetzeko eta suaren aurkako neurri espezifikoak hartzeko jarduketarako teknikoak. Baina planak ezin du "adreiluzkoa" bakarrik izan: politika sozialak,

"Ezin dugu jarraitu unean uneko larrialdiak konpontzen, estrategia orokorrik eta arloen arteko koordinaziorik gabe"

etxebizitza eskuragarria, baliabide gutxiago dituzten familientzako laguntza ekonomikoa eta egoiliarrek kanporatzea saihestuko duten jarduerak jaso behar ditu.

Nolanahi ere, ezin dugu jarraitu unean uneko larrialdiak konpontzen, estrategia orokorrik eta arloen arteko koordinaziorik gabe. Horrek baliabideak desegiten ditu eta arazoak erreproduzitzen ditu. Guk urte anitzeko proiektua nahi dugu, aurrekontu espezifikoak eta koordinazio teknikoa dituen.

Etxebizitza hutsak eta berme gutxiko alokairuak aipatzen dituzu; zer irtenbide proposatzen duzue?

2018ko etxebizitza hutsen txostenak jada adierazten zuen kontzentrazio handiena erdi-guneko kaleetan dagoela. Errolda eguneratua, bermeak dituzten alokairu-politika aktiboak, errenta eskuragarriak mantentzeko lotutako birgaitze-laguntzak eta diru-sarrera gutxiago dituzten familientzako etxebizitza publikoen aktibazioa proposatzen dugu. Birgaitzea bai, baina baldintza duinak eta eskuragarriak bermatuz.

Nola saihestu nahi da egungo biztanleak kanporatzeko arriskua auzoa birgaitu ondoren?

Kalitatea hobetzeak ezin du ekarri prezio onartezinik, ezta ordezkapen sozialik ere. Alde zaharrea bizi dira herriko diru-sarrera txikiak dituzten familiak eta beraz, errenta mugak, Udalarentzat lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak, alokairu sozialari lotutako hobari fiskalak eta laguntza-programak proposatzen ditugu. Helburua argia da: zentroa biziberritzea bertan bizi direnak kanporatu gabe.

Zentroa ez da etxebizitzak bakarrik; dendak, tabernak, terrazak, jai-esparruak, haur eta nagusientzako aisialdirako guneak... daude. Nola uztartzen da hori guztia?

"Bizilagunak dira arriskuak, beharrak eta lehentasunak hobekien ezagutzen dituztenak. Haien parte-hartzea bermatu behar da"

Alderdi horiek guztiak kontuan hartuko dituen araudi erregulatzaile batekin, inplikaturako eragile guztiei ahotsa emanez, merkatari, ostalari, egoiliar eta ordezkari politikoekin bizikidetza-mahai bat sortuz. Nolanahi ere, lehentasuna emango zaio espazio publiko inklusiboak eta irisgarriak izateari.

Ibaiak herria zeharkatzen du. Zer eginkizun du zure proposamenean?

Deba ardatz egituratzailea izan da, eta hala izan behar du berriz ere. Mugatzat ez hartzea nahi dugu, eta auzoak, espazio publikoak eta berdeguneak lotzen dituen korridore bihurtzea, babes klimatikoa emateaz gain. Etorkizuneko hirigintza-proiektu guztietan integratu behar da. Tolosak hori posible dela erakutsi digu: ibaiak, protagonista gisa, zentroa biziberritzea bultzatzea.

Zer gehitu elkarrizketa amaitutzat eman aurretik?

Hau guztia ez da bideragarria herritarren parte-hartzerik gabe. Bizilagunak dira arriskuak, beharrak eta lehentasunak hobekien ezagutzen dituztenak. Haien parte-hartzea bermatu behar da bai diseinuan, asanbladak, tailerrak, diagnostiko partekatuak, bai ondorengo jarraipenean. Ebaluazio-sistema garden eta publiko bat defendatzen dugu, adierazle argiekin eta kontrol sozialarekin. Parte-hartzerik gabe, planek ez dute erro sendorik; parte-hartzearekin, aldaketa urbano eta soziala askoz sendoagoa eta iraunkorragoa da.

**MANIFESTAZIO
NAZIONALA**

**Urtarrilak 10 • Bilbo
17:00 • La Casilla**



Ezin da gehiago luzatu.



**Konponbidea.
Bakea.
Elkarbizitza.**

Manifestacion Nacional
10 de enero • Bilbao
17:00 • La Casilla

**No se puede
alargar más.**
Paz. Resolución.
Convivencia.